

Espedientearen kodea: 2024ZZ020010

Espedientearen gaia: 2024ean Oiartzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oiartzungo artistei dirulaguntzak.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

DEKRETUA

2022ko ekainaren 29an onartu zituen Udalbatzak “Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzeko Ordenantzak”, 2022ko irailaren 20an argitaratu zirenak GAOn.

Era berean, 2021eko azaroaren 27an onartu zuen Oiartzungo Udalbatza Osoak “Oiartzungo Udalaren 2022-2024 dirulaguntzen Plan Estrategikoa”.

Aipatutako dirulaguntzen Ordenantza eta 2022-2024 dirulaguntzen Plan Estrategikoa kontuan hartuta, onartu zituen Udalak 2024ko ekainaren 27an “2024ean Oiartzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oiartzungo artistei dirulaguntzak banatzeko oinarriak”.

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 10.000 € euroko gastu-onarpena egin zen, Oiartzungo Udalaren 2024 urteko aurrekontuko aurrekontuko 1 0331.481.334.00.08.2024 (A-1677-2024) zenbakidun partidaren kontura.

Dirulaguntza hauetan kontuan izan da 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorra, Oiartzungo Udal Ordenantza Orokorra, 2022-2024rako dirulaguntzen Plan Estrategikoa, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea.

Dirulaguntza hauen oinarrietan ezartzen den bezala, beren eskaerak aurkeztu dituzte Oiartzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oiartzungo artistek.

Kultura Zerbitzuko arduradunak urriaren 17an gai honi buruz luzatu duen txostena ikusirik, eta beronekin adostasunean, Toki Jaurbidearen Araudiak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan honakoa

ERABAKI DUT

Lehen.- 2024ean Oiartzunen arte sorkuntza eta ekoizpen prozesuak garatzen ari diren Oiartzungo artistei dirulaguntzak banatzea eta ordaintzea, dokumentu honetan txertatzen den taulan agertzen den eran.

Bigarrena.- Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketak orain egitea (%80ari dagokiona, hau da guztira 8.000 €) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona, hau da, guztira 2.000 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.

Hirugarrena.- Interesatuei dagokien dirulaguntzaren justifikazio-agiriak (eskabide-orria + IV, V, eta VI eranskinak) gastuen justifikanteekin batera, 2025eko urtarrilak 31a baino lehen, udal erregistroan aurkeztu behar dituztela jakinaraztea. Orduan ordainduko zaie gainerako % 20a.

ARTE SORKUNTZARAKO DIRULAGUNTZAK 2024

ESKATZAILEA	PROIEKTUA	PUNTUAK	ESKATU	ESLEITU	% 80 ORAIN
Jon Laurentzi Mitxelena Piñeiro	Bideoklipa grabatu eta ekoitzi	50	1.500,00 €	803,92 €	643,14 €

Naiara Mitxelena Etxebeste	"Gau Beltz On" ipuina	95	3.300,00 €	1.527,45 €	1.221,96 €
Lur Live arte eta natura	Lur Live 2024	70	2.305,00 €	1.125,49 €	900,39 €
Pello Añorga Lopez	"Liburua" album ilustratua	95	900,00 €	900,00 €	720,00 €
Oihan Astigarraga Arruabarrena	Musika albuma grabatzea	50	2.000,00 €	803,92 €	643,14 €
Martzelina Bertsozale Elkartea	"Bertso Astearen Historia" ikusentzunezkoa	95	2.550,00 €	1.527,45 €	1.221,96 €
Olatz Mitxelena Larreta	Haurrentzat album ilustratua	95	900,00 €	900,00 €	720,00 €
Xabier Salaberria Gonzalez	3 liburuen edizioa eta inprimaketa	95	4.100,00 €	1.527,45 €	1.221,96 €
Hostoak Musika Elkartea	"Hostoak ostera" grabazioa	55	3.779,00 €	884,31 €	707,45 €
		GUZTIRA 700 puntu		10.000 €	8.000 €

Alkate udalburuak agintzen eta sinatzen du.

Oiartzunen, sinaduraren egunean.

Joana Mendiboure

Alkatea

Elektronikoki sinatua



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZZ020010-Dekretua/Decreto (AÑORGA, LOPEZ, PEDRO MARIA)